

Finantza-erakundeak eta elkarteak hitzarmen berri bat sinatu dute, ekonomiak bizi duen **mailakako susperraldiari** egokitua

Kutxabankek eta Getxo Enpresak bertoko negozioen aurrez aurreko eta urrutiko salmentak bultzatuko dituzte

- **Hitzarmenak finantza-produktu eta -zerbitzu espezifikoak bideratzen ditu, hala nola Kutxabank Bizum Negozioak, salmentak sustatzeko**
- **Bankuak TicketBai sistema ezartzen lagunduko die profesional eta enpresa elkartuei**

2021eko uztailaren 9an. Elena Cantera Getxo Enpresako Presidenteak eta **Maria Artaza** Kutxabankek eskualde-zuzendariak akordio bat sinatu dute. Horren bidez, finantza-erakundeak eta enpresa-elkarteak tokiko negozioei laguntzeko konpromisoa hartu dute, pandemia-aldiaren ostean ekonomiak bizi duen **suspertze-giroa** aprobetxatzen laguntzeko.

Negozioen iraunkortasun edo jasangarritasuna eta digitalizazioa dira sektorearen erronka nagusiak, eta horrek erosteko ohitura berriei eta 'normaltasun berriari' erantzun behar die. Pandemiak nabarmen areagotu du urrutiko salmentaren joera, azken urteetan jada ematen ari zena.

Horren haritik, akordioak irtenbide espezifikoak ekarriko ditu, hau da, **salmentarako** eta bezeroekin komunikatzeko **kanal berriak**, askotariko tamaina eta fakturazio-bolumena duten negozioetarako diseinatutako tresnen bidez, baita **ordainketa digitalerako sistema berriak** ere.

Horien artean, **'Kutxabank Bizum Negozioak'** sistema nabarmentzen da, Bizum ordainketa-plataformaren teknologian oinarritzen dena, eta bereziki diseinatu da beren negozioaren ezaugarriengatik txartelekin edo STrekin ordaintzeko terminalik ez duten edo Bizumekin urrutiko kobrantzak egin gura dituzten saltoki eta profesional autonomoentzat.

Finantza-erakundearen konponbide aitzindari honek aukera ematen die saltokiei eta profesionaleri hilean eragiketa-kopuru mugagabea egiteko, erosketa bakoitzeko gehienez

10.000 euroko zenbatekoarekin. 'Kutxabank Bizum Negozioak' aurrez aurre edo urrunetik kobratzeko erabil daiteke.

Hitzarmenak, gainera, enpresa txiki eta ertainei eta bezero autonomoei bereziki zuzendutako neurri sorta bat eskainiko du, Bizkaiko Foru Ogasunaren **TicketBAI** fakturazio-sistema errazteko. Horrela, Kutxabankekin lan egiten duten enpresek **lehentasunezko baldintzetan** eskuratu ahal izango dute araudi berrira egokitutako softwarea.

Getxo Enpresako kide diren negozioen lehiakortasuna hobetzeko helburuaz, Kutxabankek beraien esku jarriko du **Saltegi Kredituak** hartzen dituen finantza-produktuen eskaintza zabala. Banku-taldearen kontsumorako maileguen dibisioak (Kutxabank Kredit) Getxo Enpresako negozioen azken bezeroari aukera ematen dio erosketak Saltegi Kredituaren bidez finantzatzeko; horren ezaugarri nagusia da izapideak eta paperak alde batera uzten dituela eta establezimenduan bertan egiten dela.

Kutxabankek beraien esku jarriko du **negozio hipoteka-mailegua**, ezartzen diren higiezinak erosteko, edo **negozio-mailegua**, zirkulatzaille-premiei erantzuteko edo ekipamendu profesionalaren erosketak finantzatzeko, altzarrietatik makinataraino, garraio-elementuekin batera.

Halaber, beren negozioen eguneroko kudeaketa errazteko bereziki diseinatutako produktuak izango dituzte Getxo Enpresako kideek, hala nola **Negozio Kontua** eta **arrisku anitzeko aseguru**a, bereziki saltegi edo merkataritza-establezimenduei zuzendua, baita renting-ean dauden ibilgailuen eskaintza lehiakorra ere.

Finantza-onuren sorta zabalarekin batera, **merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresak sustatzeko** Getxo Enpresak, bai aurrez aurre, bai Internet bidez, egiten dituen jarduerak bultzatzen jarraituko du Kutxabankek.